

# Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 FORU ARAUA

.....

## 26. artikulua. Berandutza interesa

1. Berandutza interesa prestazio osagarria da. Zergapekoei eta subjektu urratzaileei exijituko zaie epez kanpo ordaintzen dutenean, ordaintzeko emaitza duen autolikidazio edo aitordutza zerga araudian ezarritako epea behin amaituta aurkezten dutenean, bidegabeko itzulketa bat kobratzen denean edo foru arau bidez ezartzen diren gainerako kasuak gertatzen direnean.

Zerga alorreko berandutza interesa exijitzeko, ez da beharrezkoa Administrazioak alde zuzenetik ohartaraztea edo zergapekoaren erruz atzerapena egotea.

2. Besteak beste, honako kasuetan exijituko da berandutza interesa:

a) Administrazioak likidazio bat egin ondoren atera den zorra edo zigorraren zenbatekoa borondatez ordaintzeko epea amaitu eta ordainketa oraindik egin ez denean.

b) Autolikidazio edo aitordutza bat aurkezteko epea behin amaituta hura aurkeztu ez denean edo aurkezpena gaizki egin denean, foru arau honen 27.2 artikuluan epez kanpoko aitordutza aldez aurreko errekerimendurik gabe aurkezteari buruz xedatutakoa salbuetsita.

c) Zerga egoera erregularizatzen duen likidazio bat egiten denean, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik likidazio hori egin arte igarotako denboragatik.

d) Egintzaren exekuzioa eteten denean, salbu eta zigorraren aurkako errekurso eta erreklamazioak direnean. Bide administratiboari amaiera ematen dion ebazpena jakinaraztean irekitzen den borondatezko epea amaitu arte igarotako denboragatik exijituko da berandutza interesa.

e) Epe exekutiboa hasten denean, foru arau honek 28. artikuluan 5 apartatuan xedatutakoa izan ezik.

f) Zergapekoak bidegabeko itzulketa bat lortu duenean.

3. Epe barruan ordaindu ez den zenbatekoaren gainean edo bidegabeki kobratutako kopuruaren gainean kalkulatu da berandutza interesa, eta zergapekoa atzeratu den denboragatik exijituko da, hurrengo apartatuan xedatutakoa salbuetsita.

4. Zerga Administrazioak ez badu betetzen, berari leporatu beharreko arrazoiengatik, foru arau honetan ebazpena emateko ezartzen diren epeetako bat, epe hori betetzen ez denetik ebazpena eman arte edo ustezko ebazpenaren aurka errekursoa aurkeztu arte ez da berandutza interesik exijituko. Besteak beste, konpentsazio eskaeren ebazpena, likidazio egintza edo errekurso administratiboen ebazpena jakinarazteko ezarritako dauden gehienezko epeak betetzen ez diren momentutik aurrera ez da exijituko berandutza interesik ordaintzea. Errekurso administratiboen kasuan, hori zilegi izango da baldin eta errekurritutako egintza etetea erabaki baldin bada.

Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango ordainketak geroratu edo zatikatzeko eskaerak ebazteko epea betetzen ez denean.

**5.** Ebazpen administratibo edo judizial batek likidazio bat baliogabetzeagatik beste likidazio bat egin beharra dagoenean, hura baliogabetzeko arrazoiak eraginda gertatu ez diren egintza eta tramiteak beren osoan kontserbatuko dira, haien eduki osoa mantenduz eta berandutza interesa likidazio berriaren zenbatekoaren gainean exijituz. Horrelakoetan, berandutza interesa konputatzeko lehen eguna baliogabetutako likidazioari artikuluko honen 2 apartatuan ezarritakoaren arabera dagokion berbera izango da, eta interesa likidazio berria ematen den unera arte sortuko da. Konputua ezin izango da amaitu ebazpena exekutatzeko gehieneko epea behin igarota, eta aurreko 4 apartatuan xedatutakoa izango da aplikagarria.

Errekurtsoak eta erreklamazioak beren osoan ezesten badira, ezezko erabakia hartu den egunera arte exijituko dira berandutza interesak.

**6** Berandutza interesa hauxe izango da, alegia, hura exijigarri den epealdian indarrean dagoen diruaren legezko interesa gehi %25, betiere bestelakoren bat finkatzen ez bada.

Dena den, berandutza interesa legezko interesa izango da, kreditu entitate edo elkarrekiko bermedun sozietate baten abal solidario bidez edo kauzio aseguruako ziurtagiri bidez osorik bermatzen diren zorrak geroratu, zatikatu edo eteteen.